

ARANTZABELA

IKASTOLA



COVID-19aren
AURREAN JARDUTEKO
KONTINGENTZIA
PLANA
2021-2022 ikasturtea



AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. ESTRATEGIA OROKORRAK
 - 2.1. PRINTZIPIO OROKORRAK
 - 2.2. COVID-19AREN TRANSMISIOA MURRIZTEKO EKINTZA OROKORRAK
 - 2.3. PREBENTZIO ARDURADUNA
 - 2.4. ZER EGIN GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO
 - 2.5. ZER EGIN POSITIBO EMANEZ GERO

3. AGERTOKIAK

4. AURREZ AURREKO IRAKASKUNTZA-JARDUERA GARATZEKO JARRAIBIDEAK (1. AGERTOKIA)
 - 4.1. ELKARBIZITZA TALDEAK
 - 4.2. ORDUTEGIA ETA SARRERA-IRTEERAK
 - 4.3. JOAN ETORRIAK ETA MUGIMENDUA
 - 4.4. HIGIENE NEURRI OROKORRAK
 - 4.4.1. HAUR HEZKUNTZARAKO NEURRI BEREZIAK
 - 4.4.2. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIKO IKASLEAK
 - 4.5. ESPAZIOEN ERABILERA
 - 4.5.1. ERREFERENTZIAKO GELAK TUTOREAREKIN
 - 4.5.2. TUTOREARENAK EZ DIREN IKASGELAK ETA IKASGAIK
 - 4.5.3. KOMUNAK



ARANTZABELA IKASTOLA

Joaquín Collar 1 01002 Vitoria-Gasteiz

Tfnoa: 945 286063 Faxa: 945 253982



IKT-n heldutasun-maila
AURRERATUA duen ikastetxea
Centro acreditado en el nivel
AVANZADO de madurez TIC

4.5.4. IRAKASLEEN ESPAZIO KOMUNAK

4.5.5. BESTE ESPAZIO BATZUK

- 4.6. JOLASERAKO ALDIAK
- 4.7. EKITALDIAK ETA IRTEERAK
- 4.8. JANTOKIA
- 4.9. ZAINZA ZERBITZUA
- 4.10. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK
- 4.11. FAMILIAK

5. BIGARREN ETA HIRUGARREN AGERTOKIAK

- 5.1. ORDUTEGIAK
- 5.2. ESPAZIOEN ERABILERA
- 5.3. IRAKASKUNTZA JARDUERA
- 5.4. JANTOKIA
- 5.5. FAMILIAK

6. INFORMAZIOA, KOORDINAZIOA ETA PARTE HARTZEA

- 6.1. SAILEN ETA SEKTOREEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA
- 6.2. INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA
- 6.3. GURASO ELKARTEA
- 6.4. LAGUNTZA PSIKOSOSIALEKO BEHARREI ERANTZUTEA



1. SARRERA

Kontingentzia Plan honen helburua, 2021-2022 ikasturtean zehar Arantzabela ikastolan jarduteko jarraibide orokorrak ezartzea da, hasierako edozein eszenatokiri eta gertaeren bilakaeraren mende egon litezkeen balizko eszenatoki-aldaketei behar bezala erantzuteko, betiere pertsonen segurtasun eta osasun baldintzak bermatuz.

Plan honek izaera dinamikoa du, eta osasun-agintariek ezarritako jarraibideen arabera eguneratuko da uneoro.

2. ESTRATEGIA OROKORRAK

2.1. PRINTZIPIO OROKORRAK

- Plangintza eta antolakuntza inprobisaziorik ez egotea eta arreta egokia bermatzea ikasleei, egoera dena dela.
- Lehentasuna ematea ikasle zaugarrienen aurrez aurreko irakaskuntza eta arretari, bereziki Hezkuntza Premia Berezien indize altua dutenei.
- Familien inplikazioa eta koordinazioa bultzatzea eta sendotzea.
- Higiene- eta prebentzio-ohiturak lantzea eta sustatzea ikasleen artean, kutsatze-arriskuak murrizteko xedearekin.
- Alderdi emozionalak eta arreta pertsonalizatua lantzea.
- Eskolaren oinarriko prestakuntza eta garapen teknologikoa ziurtatzea, online jarduera berme guztiekin garatu ahal izateko.
- Ikastolako langile guztien gaitasun digitala bultzatzea.
- Ikasle guztiei sarbide digitala bermatzea.
- Curriculumaren funtsezko osagaiak identifikatzea eta lehenestea irakaskuntza- ikaskuntza prozesuan.



2.2. COVID-19aren TRANSMISIOA MURRIZTEKO EKINTZA OROKORRAK

- 1) 1,5 metroko **segurtasun-tartea** mantentzea pertsonen artean.
- 2) **Musukoak** erabiltzea eta arnas higieena.
- 3) **Doministiku** edo ez tul egitean, musukoa erabili ezean, garrantzitsua da erabilera bakarreko zapiak erabiltzea ahoa eta sudurra estaltzeko, edo bestela, ukondoa tolestea.
- 4) **Eskuen higieena** neurri garrantzitsua da eskuek gainazetatik birusa transmititzeko duten gaitasunagatik. Urarekin eta xaboiarekin egin daiteke, baita soluzio hidroalkoholikoekin ere.
- 5) **Garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena**. Sarritan garbitu eta desinfektatu behar dira pertsonekin kontaktuan dauden gainazalak. Aldian-aldian eta egokiro aireztatzea ere oso faktore garrantzitsua da espazio itxietan kutsatzeko arriskua murrizteko.
- 6) **Kontaktu-kopurua murriztea**. Mugatu egin behar da talde-jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua. Ahal dela, jarduerak talde txikiagoetan egin behar dira, talde egonkorak osatuz eta segurtasun-tartea mantenduz haien artean.
- 7) Segurtasun neurrien **jarraibideekin kartelak** jarriko dira, eraikinen sarreretan, geletan, jantokietan, komunetan zein espazio komunetan, informazioa ahalik eta gehien zabalduz.

2.3. PREBENTZIO ARDURADUNAK

Ikastetxean COVID-19rekin lotutako alderdietarako erreferentziazko lantalde bat egongo da, bizpahiru pertsonakoa. Talde hau, zuzendariak, Lehen Hezkuntzako irakasle batek eta Haur Hezkuntzako beste batek



osatuko dute. Talde honen egitekoa, Prebentzio Zerbitzuarekin eta segurtasun- eta osasun-laguntzailearekin harremanetan egotea eta COVID-19ak sor litzakeen prebentzio arloko aparteko jarduerak koordinatzea izango da

- **Ekintzak erregistratuko dira:** egiten diren ekintzen erregistro-liburu edo agenda bat egongo da, jarraibide edo ekintza horren data, ordua, arduradunak eta abar zehaztuz.
- **Egoera honetan sor daitezkeen dokumentu guztiak gordeko dira:** garbiketa-partiak, kanpoko mantentze-kontrolak, zerbitzu-albaranak, lan-bajak, etab.

Prebentzio Koordinatzaile gisa izendatu den pertsona horri COVID-19ak eragingo balio, haren ordezkoa izendatu beharko da.

2.4. ZER EGIN GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO

a. SINTOMAK ESKOLAN AGERTZEN BADIRA

Sukarra (+37,0°), eztula eta aire falta sintomak agertzen badira, berehala jakinarazi behar da. Horretarako, sintomak dituen pertsona prestatutako **ISOLAMENDU GELA** batera eramango da (maskara jarrita duela), eta IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI jakinaraziko diote. Hark Prebentzio Zerbitzuko **MEDIKU ARLOARI JAKINARAZIKO DIO, DAGOZKION JARRAIBIDEAK** jaso ditzan.

- **Ikaslea bada:** berarekin doan pertsonak distantziaren eta maskaren neurriak gordeko ditu. Ikastetxeko zuzendaritzak edo COVID19 prebentzio arduradunak familiarekin harremanetan jarriko dira, etxera eramateko. Familia harremanetan jarriko da lehen mailako arretako medikuarekin, argibideak jarraitzeko



- **Hezkuntza Saileko langilea bada:** isolatu egingo da (maskara eta guzti), eta bere etxera joango da, ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi ondoren. Zuzendaritza hori Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko medikuntza arloarekin harremanetan jarriko da berehala.
- **Beste langile bat bada:** Beste enpresa bateko edo Administrazio Orokorreko langilea bada, ikastetxeko zuzendaritzari, dagokion prebentzio-zerbitzuari eta Hezkuntzari berari jakinaraziko die, eta haren jarraibideak beteko dira.

Giza Baliabideen Departamentuak, prebentzio-delegatuek eta ikastetxeko Prebentzio Koordinatzaile edo arduradunak gaixoaren jarraipena egiteko protokoloari eutsiko diote, eta, COVID-19 positibo bat atzemanaz gero, berehala eragile guztiei jakinaraziko zaie eta, bereziki, kutsatutakoarekin harremanetan egon diren langile guzti-guztiei.

b. SINTOMAK ETXEAN AGERTZEN BADIRA:

- **Irakaslea edo langilea bada:**
 - **Ezingo dira lanpostuan sartu** sintomak dituzten edo etxean isolatuta dauden pertsonak, COVID-19 diagnostiko baten ondorioz, edo etxean berrogeialdian daudenak, sintomak dituen pertsonaren batekin edo COVID-19 diagnostikatuta duen pertsonaren batekin harreman estua izateagatik.
 - Osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da edo osasun-agintariek adierazitako arreta telefonora deituko du.
 - Bilakaeraren berri emanen dio administrazioari eta gaixoarekin harremanetan egon diren gainerako langileekiko Osasun Agintaritzak ezartzen duen protokoloari jarraituko zaio.
- **Ikasleen kasuan:**



ARANTZABELA IKASTOLA

Joaquín Collar 1 01002 Vitoria-Gasteiz

Tfnoa: 945 286063 Faxa: 945 253982



IKT-n heldutasun-maila
AURRERATUA duen ikastetxea

Centro acreditado en el nivel
AVANZADO de madurez TIC

- **Sintomak antzemanaz gero** (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.), familiak osasun-zentrora deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Kasu honetan, familiak eskolarekin ahalik eta azkarren jarriko da kontaktuan.
- Ikasleren baten **etxeko norbaitek COVID-19aren diagnostikoa jaso badu**, gurasoek edo tutoreek horren berri emango diete eskolako agintariei eta ikaslea etxean mantendu beharko dute.

2.5. ZER EGIN POSITIBO EMANEZ GERO

Haur edo irakasleren batek Covid-19n positibo emanez gero, **familiak berehala jakinarazi beharko dio ZUZENDARITZARI.**

Osasun sailak ikastolari kasua konfirmatu bezain laster, Osasun Sailaren SARS-Cov koronabirusa zaintzeko protokoloari jarraituko zaio:
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/vigilancia_protocolos/eu_d ef/adjuntos/Protocolo-Coronavirus-SARS-CoV-2-eu.pdf



3. AGERTOKIA

Hezkuntza sailetik adierazi bezala, **2021-2022 ikasturtean erabateko presentzialtasuna bermatuko da** euskal hezkuntza-sisteman. Beraz, aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera izango dugu, momentu oro osasun-agintarien gomendioak jarraituko direlarik.

4. AURREZ AURREKO IRAKASKUNTZA-JARDUERA GARATZEKO JARRAIBIDEAK

4.1. ELKARBIZITZA TALDEAK

Maila bakoitza elkarbizitza taldea izango da.

Haur Hezkuntzan **mailakako talde “burbiulak” ezarriko dira**, musukoa erabiltzea ez baita derrigorrezkoa. Talde horietako kideek elkarren artean sozializatu eta elkarreragin dezakete, **pertsonen arteko distantzia zorrotz mantendu beharrik gabe.**

Elkarbizitza taldea uneoro mantenduko da, eta metodologia, espazioak, taldetzatzeak etab. talde bakoitzaren segurtasun eta ongizatea bermatuz antolatuko dira.



ARANTZABELA IKASTOLA

Joaquín Collar 1 01002 Vitoria-Gasteiz

Tfnoa: 945 286063 Faxa: 945 253982



IKT-n heldutasun-maila
AURRERATUA duen ikastetxea

Centro acreditado en el nivel
AVANZADO de madurez TIC

4.2. ORDUTEGIA ETA SARRERA-IRTEERAK

a) ESKOLA ORDUTEGIA ETA SARRERA ETA IRTEEREN ORDUTEGIA:

Eskolak goiz eta arratsaldez emango dira, lehenengo taldea beti hamar minutu lehenago sartuko delarik.

Haur Hezkuntzan, eskola-egunaren hasiera eta amaiera **mailakatua** izango da, kontaktuak eta pilaketak mugatuz eta pertsonen arteko distantzia errespetatuz. Lehen Hezkuntzan, ordutegi berbera izango dute, baina sartzeko eta ateratzeko ateak eta guneak nor bereak izango ditu. Eskolara sartzekoan eta ateratzekoan **irakasleak bere taldeko ikasleak hartuko eta utziko ditu.**

<u>HH</u>	GOIZEZ		ARRATSALDEZ		SARRERA-IRTEERA
	SARRERA	IRTEERA	SARRERA	IRTEERA	
5 urte	09:20	12:50	14:50	16:50	Haur Hezkuntzako sarrera nagusia
4 urte	09:25	12:55	14:55	16:55	
3 urte	09:30	13:00	15:00	17:00	
2 urte	09:30-09:50	12:30-12:45	15:05	16:45	Haur Hezkuntzako eraikina: 2 urtekoen sarrera
2 eta 3 urtekoek, irailean egokitzapeneko ordutegia izango dute.					



ARANTZABELA IKASTOLA

Joaquín Collar 1 01002 Vitoria-Gasteiz

Tfnoa: 945 286063 Faxa: 945 253982



IKT-n heldutasun-maila
AURRERATUA duen ikastetxea

Centro acreditado en el nivel
AVANZADO de madurez TIC

LEHEN HEZKUNTZA

MAILA	GOIZEZ	ARRATSALDEZ	SARRERA-IRTEERA	
LH 1	Irailak 8-15 eta Ekainak 6-21 9:30- 13:30 Irailak 16 – Ekainak 3 9:30-13:00	Irailak 16 – Ekainak 3 15:00-17:00	Jolastokiko hesia: betikoa	Frontoi alboko atea
LH 2				Frontoi alboko atea
LH 3			Zuzendaritzarako sarrera	Musika gela alboko atea
LH 4			hesia	Emergentziako eskailerak: ingeles gela albokoak
LH 5			Bruselas kaleko hesia, autobus geltoki alboan	Emergentziako eskailerak: frontoi albokoak
LH 6				

Eraikinaren inguruko aterpean, **gela bakoitzak ilara bat osatuko du**. Lurreko eta zutabeetako markek zehaztuko dute ikasle taldea non jarri behar den (A edo B). Eraikinetik sarrera eta irteerak (goizean, arratsaldean, jolastorduan...) beti ate berdinetik egingo dira.

Umeak bakarrik sartuko dira eskolara eta irakaslea markatutako gunean egongo da zain. Eskolatik ateratzeko orduan, irakasleak hesiraino lagunduko du ikasle taldea.



4.3. JOAN ETORRIAK ETA MUGIMENDUA

Ikastetxean zirkulatzeko **seinaleztatutako zirkuituak** egongo dira mugikortasuna antolatuago izateko.

Esan bezala, **gela bakoitzak sarrera-irteera ate berdinetik** egingo ditu. Hau horrela, barruko eskaierak irakasleek soilik erabiliko dituzte.

4.4. HIGIENE NEURRI OROKORRAK

a. ESKUAK GARBITZEA:

- **Sarrera guztietan dosifikadoreak** daude eta ikasleek, sarrera-irteeretan eskuak garbituko dituzte.
- Gela bakoitzean gel hidroalkoholikoa egongo da eskuragarri.

b. MUSUKOA ETA PANTAILAK:

Derrigortasuna:

	Haur Hezkuntza:	LH 1. eta 2. mailak	LH 3., 4., 5. eta 6. mailak
IKASLEAK	Ez da derrigorrezkoa, gomendagarria da.	Aire zabaleko jardueretan, kontakturik ez badago, kendu ahal izango da; bestela derrigorrezkoa da.	
IRAKASLEAK	Derrigorrezkoa.		

- Musukoaren erabilera zuzena azaldu behar da, gaizki erabiltzeak transmisio-arrisku handiagoa ekar baitezake.
- Ikastetxeak musukoak izango ditu irakasle eta langileentzat (Eusko Jaurlaritzatik ekartzen dituzte eta homologatuak dira)
- **Familia bakoitza arduratuko da ikasleek musuko egokia ekartzeaz. Maskara higieniko homologatua izango da gutxienez.**



c. TENPERATURA:

Ikastetxera heltzean ez da tenperaturarik hartuko; etxean hartzea gomendatzen da.

d. DISTANTZIAK:

- **1,5 metroko distantzia mantenduko da lagunen artean** ahal den momentu guztietan. Distantzia dena dela, musukoa nahitaez erabili beharko da.
- Aurrez aipatu bezala, Haur Hezkuntzan kideek elkarren artean sozializatu eta elkarreragin dezakete, pertsonen arteko distantzia zorrotz mantendu beharrik gabe. Lehen Hezkuntzan ere, elkarreragin eta harremanak izan ahalko dituzte, baina beti musukoarekin.

e. GARBIKETA ETA AIREZTAPENA

Eskola garbi mantendu ahal izateko eta garbiketa errazteko, bakoitzaren lan-eremua eta erabilitako espazioak jasota utzi beharko dira. **Ikastolako desinfekzioa** ez da bakarrik garbiketako langileena, ardura hori, ikastetxeetan dauden **langile guztiena da**.

Garbiketa eta aireztapenerako neurriak:

- **Noizean behin geldialdiak** egingo dira eskuak garbitzeko zein arnasa hartu ahal izateko.
- Azalera guztiak (altzariak, lan-ekipoak) instalazio komunak, igarotze-eremuak eta erabilera pertsonaleko guneak **garbitzeko maiztasuna handituko** da.
- Langileen artean eta langile eta ikasleen artean **ez da partekatuko garbitu gabeko objekturik** (grapagailuak, guraizeak...)
- Ikastetxeko eremu guztietan **airearen berrikuntza areagotu** behar da, ahal den guztietan. Baldintza meteorologikoek eta eraikinak ahalbidetzen



dutenean, **leihoak ahalik eta denbora gehien irekita edukitzea gomendatzen da.**

- Gela bakoitzean gainazalak desinfektatzeko produktuak egongo dira eskura.

4.5. ESPAZIOEN ERABILERA

4.5.1. ERREFERENTZIAKO GELAK TUTOREAREKIN

Elkarbizitza taldea ahal den neurrian gela berean egongo da.

4.5.2. TUTOREENAK EZ DIREN IKASGELAK ETA IKASGAIAK

Musika eta gorputz hezkuntzako nahasketarik ez dira egingo; bai ordea, **TAILERRETAN**, taldekatze txikiagoan izango direlarik eta egonkorrak.

INGELESA eta **MUSIKA** ikasgaiak erreferentziazko ikasgelan emango dira.

GORPUTZ HEZKUNTZAren kasuan, irakaslea gelara hurbilduko da, eta honek ikasleak jolastokira edo frontoira gidatuko ditu segurtasun neurriak jarraituz. Musukoa derrigorrezkoa da, baina distantzia mantentzen den kasuetan kentzeko aukera egongo da.

PT eta **ALE** irakasleek ikasgela barruan emango dute laguntza ahal den neurrian. Ikasleak gelatik atera behar badira, mini-talde egonkorrak osatuko dira.



ARANTZABELA IKASTOLA

Joaquín Collar 1 01002 Vitoria-Gasteiz

Tfnoa: 945 286063 Faxa: 945 253982



IKT-n heldutasun-maila
AURRERATUA duen ikastetxea
Centro acreditado en el nivel
AVANZADO de madurez TIC

4.5.3. KOMUNAK

Gela bakoitzak bere komuna eta iturria izango du, karteltxo batekin identifikatuta. Ikasleek joateko gogoia dutenean, irakasleari baimena eskatu eta joan ahal izango dira, bakarka, dagokien komunera.

4.5.4. IRAKASLEEN ESPAZIO KOMUNAK

- Espazio bakoitzaren kanpoaldean gehienezko pertsona kopurua zehaztuko da.
- Kafe-makinara joan aurretik eta erabili ondoren gomendatzen da eskuak garbitzea, eta botoiak sakatzeari edo gainerako zatiak ukitzeari dagokionez, gomendatzen da erabili eta botatzeko zapi bat erabiltzea
- Material komuna erabili aurretik eskuak garbitzeko gela dagoela bermatu eta ostean desinfektatu.

4.5.5. BESTE ESPAZIO BATZUK

Informatika gela, marrazketa gela eta liburutegia erabiliko dira, betiere beharrezko higiene-neurriak hartuz eta erabilera-erregistroa eramanez.

Barruko bilera handiak egiteko soilik erabiliko da, betiere, distantziak mantenduz. Ikasleek ez dute erabiliko.



4.6. JOLASERAKO ALDIAK

Maila bakoitzak jolaserako espazio bat izango du, bitan zatituta egongo delarik, alde banatan gela bat kokatuz. **Irakaslearekin jaitsiko eta igoko dira eta dagokien espaziora heldu arte musukoarekin joango dira.** Astero espazioaren errotazioa egingo dute eta eguraldiaren arabera aldaketak egon daitezke.

HAUR HEZKUNTZA


Jolastokia hiru espaziotan banatuko da eta erreferentzia talde bakoitza (A B edo C) espazio horretan egongo da. Espazioak eguneka txandakatuko dituzte.

- **Zaintza:** gune bakoitzean irakasle bat egongo da.
- **Eguraldi txarra badago:** gelan.

LEHEN HEZKUNTZA

Jolastokia 6 espaziotan banatuko da. Umeak espazioak txandakatzen joango dira egingo den egutegiaren arabera.

- **Zaintza:** gune bakoitzean irakasle bat egongo da.
- **Eguraldi txarra badago:** ikasleak gelan geratuko dira.





4.7. EKITALDIAK ETA IRTEERAK

Batzar edo bilera jendetsuak saihestuko dira. Ondorioz, **ekitaldiak eta ospakizunak talde egonkorretan** antolatu eta burutuko dira. Pandemiak hobera egin egin ahala, neurri hau malgutzea baloratzen da.

Irteerak burutuko dira, betiere, taldea mantenduz. Aurretik, kutsatze arriskuak **ebaluatuko dira**, irteera bakoitzak ezaugarri propioak ditu eta.

4.8. JANTOKIA

***Jantokiko protokolo definitiboa zehazteke dago.*

4.9. ZAINZA ZERBITZUA

Talde egonkorak direla eta, eskola-ordutegiaren aurretik eskaintzen den zaintza zerbitzua talde horiek errespetatzen antolatu behar da. Zerbitzu hau antolatzea Guraso Elkartearen konpetentzia da, eta, momentuz, ez da ezer antolatu, nahiz eta aurreikusten den.

4.10. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Mailaka antolatuko dira, ekintza bakoitzak bere espazio propioa izango duelarik. Ikastolako kontingentzia plana aplikatuko da eskolaz kanpoko ekintzetan ere.



4.11. FAMILIAK

Familiekin telefonoz, posta elektronikoz, mezuz edo posta arruntez harremanetan jartzea lehenetsiko da, eta kudeaketa telematikoak egiteko bide emango da.

Familiak irakasle zein zuzendaritza taldearekin biltzeko soilik sartuko dira ikastolara, betiere, aurrez hitzordua hartuz.

5. INFORMAZIOA, KOORDINAZIOA ETA PARTE HARTZEA

5.1. SAILEN ETA SEKTOREEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

Sailen eta sektoreen arteko lana sendotu behar da toki-mailan, eta administrazioko mailen arteko koordinazioa, elkarlanean oinarritzen diren eta ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokitzen diren irtenbideak eduki ahal izateko, prebentzio-neurriak betetzeko aukera ematen dutenak, bai eta COVID-19aren kasu posibleak edo agerraldiak kudeatzeko eta kalteberatasun sozial handieneko egoerei arreta emateko beharrezkoa den komunikazioari bide emateko ere.

Komunikazio eta koordinazio hori honako hauekin ezarri behar da:

- **Osasun Sailarekin**, kasuen, berragerraldien eta osasun-indikazio berrien jarraipena egiteko, bai eta ezar daitezkeen kontrol-neurriak ere. Ikastetxeak erreferentziazko ESI bat dauka, positiboak dauden kasuan egoera gestionatzen laguntzeko.
- **Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin**, bai eta toki-erakundeetako **gizarte-zerbitzuetako sailekin** ere, gizarte-egoera ahulean dauden ikasleen kasuan informazioa eta lankidetzaz errazteko.



5.2. INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA

Informazioa eguneratuta eduki behar dugu: administrazioak, ikastetxeok eta eskola-elkarteko kideok COVID-19aren inguruko informazioa eguneratua izan behar dugu, eguneratuta dauden iturri ofizialen bidez, bai sintomei dagokienez, bai transmisioa prebenitzeko moduei dagokienez

Erne ibili behar dugu informazioarekin; horretarako, **informazioa uneoro dago eguneratuta Osasun Sailaren webgunean:**

<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berria/>

Zuzendaritza-taldeak ziurtatu behar du ikastetxeetan ezarri diren jarduketa-protokoloei eta prebentzioko, higieneko eta osasunaren sustapeneko neurriei buruzko informazioa eskola-elkarte osoari iristen zaizkiola eta ulertu egiten dituela.

5.3. GURASO ELKARTEA

Garrantzitsua da informazioa guraso-elkarteekin trukatzeari; izan ere, familiek eta legezko tutoreek argi ezagutu behar dituzte hezkuntza-jardueraren garapenarekin zerikusia duten alderdi guztiak eta neurriak egoki ezartzeko informazio guztia. Era berean, garrantzitsua da, informazio erabilgarria zabaltzea sustatzen lagundu dezaketelako.

Ikasturtea hasteko baldintzen inguruko informazio argia izan beharko dute, bai eta sintomak, pandemiaren bilakaera eta hezkuntza-jarduerak beste eszenatoki batzuetara egin ditzakeen bilakaerak ikuskatzeko duen eginkizun aktiboaren ingurukoa ere.



ARANTZABELA IKASTOLA

Joaquín Collar 1 01002 Vitoria-Gasteiz

Tfnoa: 945 286063 Faxa: 945 253982



IKT-n heldutasun-maila
AURRERATUA duen ikastetxea
Centro acreditado en el nivel
AVANZADO de madurez TIC

5.4. LAGUNTZA PSIKOSOZIALEKO BEHARREI ERANTZUTEA

Familiarekiko edo legezko tutorekiko eta ikasleekiko komunikazioa lehentasunezkoa izango da arrisku-kasuetan, baina baita gainerako ikasleekikoa ere. Beraz, tutore-lanaren esparruan, komeni da taldeko edo banako tutoretzako saioetan **zeharkako gaitasunen garapenarekin** lotura oso estua duten honako eremu hauetako batzuk planteatzea: izaten jakitea, harremanetan jarduten jakitea eta ikasten ikastea.

Halaber, bizi izandako egoera ikuspegi afektibo-emozionaletik baloratzea bultzatuko da.